BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

3706

EBAZPENA, 2012ko uztailaren 26koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, abenduaren 23ko 327/2003 Dekretuaren II. kapituluan, laneratzearen zerbitzurako prestakuntza-baliabideei buruzkoan, aurreikusitako laguntzak finantzatzeko 2012an esleitutako kredituen guztizko zenbatekoaren berri ematen duena.

2012ko maiatzaren 4ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (87. zk.) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2012ko apirilaren 18ko Ebazpena eman zen jakitera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2012. urtean abenduaren 23ko 327/2003 Dekretuaren II. Kapituluan, laneratzearen zerbitzurako prestakuntza-baliabideei buruzkoan, aurreikusitako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen guztizko zenbatekoa ezagutzera ematen duen Ebazpena, alegia. Guztira, 4.785.714 euro emango dira; diru-kopuru horretatik 3.785.714 euro 2012ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.000.0000 euro 2013ko konpromiso-kredituari, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagokion 41. sekzioko 3231 – Prestakuntza programaren kargura.

Ebazpen horretan ezartzen da zenbateko hori eguneratu ahal izango dela, hala badagokio, indarreko legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira eta aldaketa horiek baldin badaude, gertaera hori jakitera emango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren Ebazpenaren bitartez.

Gaur egun, langabezia-tasak handia izaten jarraitzen duenez, guk uste dugu abenduaren 23ko 327/2003 Dekretuaren II. Kapituluko diru-laguntzaren lineak jarrai dezakeela Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegu-bulegoetan eta orientazio-zerbitzuen sarean artatzen diren eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten enplegu-eskatzaileen lanbide-trebakuntza eta pertsona horiek lan-merkatuan duten posizioa hobetzen.

Horregatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2012ko uztailaren 16an egindako bileran adostu du abenduaren 23ko 327/2003 Dekretuaren II. Kapituluan araututako laguntzak finantzatzeko esleitutako baliabide ekonomikoak areagotzea, eta agindu du Erabaki horretako edukia jakitera ematea.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

2012ko uztailaren 16ko bileran Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartutako erabaki hau jendaurrean adieraztea:

«Lehenengoa.– Abenduaren 23ko 327/2003 Dekretuaren II. kapituluan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak areagotzea, 8.500.000 euroko zenbatekoarekin; diru-kopuru horretatik, 5.950.000 euro 2012ko ordainketa-kredituari dagozkio eta 2.550.000 euro 2013ko konpromiso-kredituari, betiere Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagokion 41. sekzioko 3231– Prestakuntza programaren kargura.

Horrenbestez, aipatutako laguntzak finantzatzera bideratutako aurrekontu-kredituaren guztizko zenbatekoa 13.285.714 euro da; zenbateko horretatik 9.735.714 euro 2012ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 3.550.000 euro 2013ko konpromiso-kredituari.

Zenbateko horiek Europako Gizarte Funtsaren baterako finantzaketarako aurkeztuko dira, 2007-2013ko EAEko EGF Programa Operatiboaren kargura, programa operatiboaren esparruan onartutako jardunei dagokien zatian».

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Errekurtsoak.

Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, eta horren aurka berraztertzeko errekurtsoa jartzeko aukera izango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren aurrean, hilabeteko epean argitaratze-egunaren biharamunetik, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean argitaratze-egunaren biharamunetik.

Bigarrena.– Ondorioak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak Ebazpen honek.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 26a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JAVIER RAMOS SALAZAR.